

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUROPAKO UDALERRI ETA ESKUALDEEN
KONTSEILUAREN, BILBOKO UDALAREN ETA EUDEL-EUSKADIKO UDALEN
ELKARTEAREN ARTEKOA, DEMOKRAZIAREN TOKIKO DEFENTSARAKO
EUROPAKO BEHATOKIA (ODELL) SORTU ETA INPLEMENTATZEARI
BURUZKOA

Elkarrekin bilduta:

Fabrizio Rossi jauna, CEMRko idazkari nagusia, Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluaren (CEMR) ordezkari gisa, egoitza sozialtzat hau duena: Square de Meeûs 1, 1000 Brusela, Belgika. BEZ erregistroaren zenbakia: BE 0544.372.611.

Juan Mari Aburto Rique jauna, Bilboko alkatea, egoitza sozialtzat hau duen: Ernesto Erkoreka plaza 1, 48007 Bilbo, Espainia; IFZ: P4802400D), eta

Esther Apraiz Fernández la Peña andrea, EUDELeko elkarteburu eta Derioko alkatea, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen izenean (egoitza sozialtzat hau duena: Ercilla kalea 13, 48009 Bilbo, Espainia; IFZ: G01029503)

Aldeek lankidetzat-hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasun juridikoa onartzen diote elkarri, eta, horrenbestez,

ADIERAZTEN DUTE

1. Demokraziaren Tokiko Defentsarako Europako Behatokiak (ODELL) tokiko demokrazia indartu nahi duela, Europa osoko ordezkari hautetsiek aurrean ditzuten mehatxu gero eta handiagoei aurre eginez.
2. ODELLek balio demokratikoak defendatzeko, bizitza politikoaren osotasuna babesteko eta tokiko eta eskualdeko gobernantzaren erresilientzia indartzeko lan egiten duela.
3. Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak (CEMR) toki- eta eskualde-mailan autonomia eta demokrazia sustatzeko lan egiten duela. Helburu hori lortzeko, Europaren etorkizuna eratzen ahalegintzen da, tokiko eta eskualdeko ekarpena hobetuz, Europako legedian eta politikan eraginez eta tokiko eta eskualdeko esperientziak trukatzuz.
4. Bilboko Udalak, balioekin konprometitutako hiria den aldetik, toki-mailan demokrazia sustatzeko ekintzak bultzatzea duela helburu; aplikatu beharreko araudian ez dagoenez eskumenen zuzeneko esleipenik, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak estaltzen ditu arlo horretako udal-eskumenak, 127.1.n) artikuluan.

5. EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteak adierazten duela, bere Estatutueta 5. artikuluan, helburuen artean “Tokiko autonomia sustatzea eta defendatzea” eta “Tokiko demokrazia sustatzea eta babestea” dituela.
6. Lankidetzeta hau eta Aldeen ekarpen ekonomikoa ezartzeko, lankidetzeta-hitzarmena sinatzea adostu dutela, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren aplikazio-eremua eta xedea.

Hitzarmen honen helburua da parte hartzen duten aldeen arteko lankidetzeta-esparru orokorra ezartzea, ODELL Demokraziaren Tokiko Defentsarako Behatokia inplementatzeko (aurrerantzean, “Ekintza” deitua).

Europar erresilientzia demokratikoa indartzea du helburu Ekintzak, tokiko ordezkari eta erakunde hautetsien aurkako mehatxuak dokumentatuz, aztertuz eta horiei erantzunez, ikerketaren, parte-hartze politikoaren eta maila anitzeko lankidetzaren bidez.

Aldeek 1. eranskinean ezarritako helburu, jarduera eta metodologiarekin bat etorri lagunduko dute Ekintza inplementatzen, eta hitzarmen honetako eta eranskinetako xedapenekin bat etorri.

Alde bakoitzak bere erantzukizunaren pean jardungo du eta Akordio honen ondorioz bereganatutako konpromisoak gardentasunaren, kontuak ematearen eta finantzakudeaketa onaren printzipioen arabera betetzen direla bermatuko du.

Bigarrena. – ODELLekin lotutako xedea, helburuak eta jarduerak

Demokraziaren Tokiko Defentsarako Europako Behatokiak (ODELL) tokiko demokrazia indartu nahi du, Europa osoko ordezkari hautetsiek aurrean dituzten mehatxu gero eta handiagoi aurre eginez.

Datu fidagarriak bilduz, parekoen arteko laguntza erraztuz eta esperientziak trukatur, erantzun instituzionalak sustatuz eta sentsibilizazio politiko eta publikoa bultzatuz, ODELLek balio demokratikoak defendatzeko, tokiko bizitza politikoaren osotasuna babesteko eta tokiko eta eskualdeko gobernantzaren erresilientzia indartzeko lan egiten du.

2.1 ODELLen helburuak

Helburu hauek izango ditu ardatz ODELLek:

- 1) Tokiko eta eskualdeko funtzionario hautetsien eta demokraziaren aurkako mehatxuak monitorizatzea eta aztertzea Europa osoan, barne hartuta ahozko abusua, larderia, online desinformazioa eta eraso fisikoak.
- 2) Azaleratzen ari diren joerak eta mehatxu horiek areagotzen dituzten funtsezko kausak identifikatu eta aztertzea, hala nola sare sozialen zeregina, krimen antolatua eta mugimendu autoritarioen gorakada.
- 3) Tokiko eta eskualdeetako gobernuen (TEG) praktika eta erantzun arrakastatsuak biltzea eta sustatzea, Europa osoan errepikatzeke eta zabaltzeko helburuarekin.
- 4) Jakintzan oinarritutako informazioa eta analisiak sortzea, politiken formulazioa eta erakundeen erantzunak maila guztietan bideratzeko.
- 5) Tokiko konpromiso politikoaren inguruko narratiba positiboa bultzatzea, zerbitzu publikoaren balioa eta ordezkaritza demokratikoaren garrantzia nabarmenduz.
- 6) Sustapen-ahaleginak sendotzea, arduradun politiko nazional eta europarrei ebidentzietan oinarritutako gomendioak emanez, erakunde demokratikoak indartzeko eta funtzionario hautetsiak babesteko.
- 7) Mehatxuen eraginpean dauden tokiko politikarientzat gune seguru eta lagungarria sortzea, parekoen arteko trukea, elkartasuna eta elkarrengandik ikastea erraztuz.
- 8) Prebentzio-tresnak eta -baliabideak garatzea, TEGei, alderdi politikoei eta erakundeei arriskuak modu proaktiboan murrizten eta errespetu demokratikoaren kultura indartzen laguntzeko.

2.2 ODELLen jarduerak

ODELLen jarduerak hiru aldiren inguruan egituratuko dira:

- a) 1. aldia (2025eko azaroa-abendua) – Komunikazio- eta abiarazte-jarduerak:

ODELL 2026an bete-betean abian jarri aurretik, zenbait prestakuntza-jarduera egingo dira 2025ean. Fase honen helburu nagusia da programaren abiarazte ofiziala bermatzea, eta programa erabat inplementatzeko trantsizio arin eta efikazerako beharrezkoak diren egiturak, aliantzak eta tresnak ezartzea.

2025eko programa ODELL ofizialki abiaraztean eta 2026an eta 2027an bete-betean inplementatzea bermatzeko behar den konfigurazio operatiboan oinarrituko da.

- b) 2. aldia (2026ko urtarrila-abendua) – Jarduerak urte osoan zehar inplementatzea
- c) 3. aldia (2027ko urtarrila-abendua) – Jarduerak urte osoan zehar inplementatzea

2026tik aurrera, ODELL fase operatiboan sartuko da. Jarduera nagusi multzo bera ezarriko da 2026an eta 2027an, elkarri lotutako hiru lan-ildoren inguruan egituratuta:

- a) Tokiko mailan, Demokraziaren aurkako mehatxuei buruzko datuak biltzea
- b) Demokraziaren tokiko defentsaren egoerari buruzko urteko txostena egitea
- c) Politikak sustatzea eta kontzientziazio publikoa

Hitzarmenaren indarraldian garatuko diren helburu eta jardueren zehaztasunak lankidetzaz hitzarmen honen I. Eranskinean daude jasota.

Aldi jakin baterako esleitu diren erabili gabeko funtsak hurrengo aldira transferitu daitezke, betiere, onartutako lan-planean aurreikusitako jarduerak gauzatzeko erabiltzen badira eta aldiko jarduera-txostenean transferentzia justifikatzen bada.

Hirugarrena. Aldeek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak.

3.1. – CEMRk, hitzarmen honen esparruan, konpromiso hauek hartzen ditu:

- ODELL inplementatzeko planifikatutako jarduerak gauzatzea; horretarako, behar den giza taldea jarriko du.
- ODELLek lortu nahi duen helburua zabaltzea, komunikazio-tresna zehatzak landuz.
- Tokiko mailan, Demokrasiaren aurkako mehatxuei buruzko datuak biltzea.
- Demokrasiaren tokiko defentsaren egoerari buruzko urteko txostena egitea.
- Politikak sustatzea eta herritarrak kontzientziatzea.
- Lankidetzaren hitzarmen honetan zehaztutako gobernantza-organismoetan parte hartzea.

3.2. – Bilboko Udalak, lankidetzaren hitzarmen honen esparruan, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Lankidetzaren hitzarmenaren xede diren jarduerak finantzatzea. Guztira, 100.000 € ordainduko dira 2026an eta 2027an (50.000 € ekitaldi bakoitzean), 2026/00296 Tokiko demokraziarako Europako Behatokia gastu-proiektuaren kontura.
- Aldeekin elkarlanean aritzea ODELL inplementatzearekin lotutako jarduerak diseinatzen eta planifikatzen, udal-antolakuntzaren ezagutza haien esku jarri.
- ODELLen ekintzak jakinaraztea, eskura dituen udal-baliabideen bidez (webgunea, sare sozialak...).
- Lankidetzaren hitzarmen honetan zehaztutako gobernantza-organismoetan parte hartzea.

3.3. – EUDELek, lankidetzaren hitzarmen honen esparruan, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Lankidetzaren hitzarmenaren xede diren jarduerak finantzatzea. Guztira, 222.000 € ordainduko dira 2025ean (62.000 €) eta 2026an eta 2027an (80.000 € ekitaldi bakoitzean), Europako Behatokiaren Hitzarmenaren (ODELL) 920/48106 partidaren kontura.
- ODELLen bulegoa Bilbon kokatzeko lekua ematea.

- Aldeekin elkarlanean aritzea ODELL inplementatzearekin lotutako jarduerak diseinatzen eta planifikatzen, udal-antolakuntzaren ezagutza haien esku jarritz.
- ODELLek garatutako ekintzak jakinaraztea, eskura dituen udal-baliabideen bidez (webgunea, sare sozialak...).
- Lankidetzeta-hitzarmen honetan zehaztutako gobernantza-organoetan parte hartzea.

3.4. – Ordainketen erregimena.

Bilboko Udalak eta EUDELEk beren gain hartutako konpromisoek dagozkien zenbatekoak CEMRk txosten narratiboak eta finantzarioak aurkezteko egingo dituen aldien arabera ordainduko dira, Koordinazio Operatiboko Taldeari aurkezteko. Hauek dira txosten horiek aurkezteko epeak:

- 1. aldia (2025eko azaroa-abendua)
- 2. aldia (2026ko urtarrila-abendua)
- 3. aldia (2027ko urtarrila-abendua)

Eragiketak Koordinazio Operatiboko Taldeak aurreko denboraldiko txostenak onartzen dituenetik bi hilabeteko epean ordainduko zaizkio CEMRi, banku-transferentzia bidez, kontu honetan:

- Kontuaren titularraren izena: Conseil des Communes et Régions d'Europe
- Bankuaren izena: BELFIUS BANK
- IBAN: BE67 0910 2105 4887
- BIC/SWIFT kodea: GKCCBEBB

Ordaindutako zenbatekoak 2025eko azaroaren eta 2027ko abenduaren 31ren artean erabili beharko dira, ekintza gauzatzeko, eta gastu identifikagarri eta egiaztagarrietan zehaztu beharko dira, bai eta aplikatu beharreko zerga- eta gizarte-legeriaren betekizunak bete ere.

CEMRk egingo dituen gastuak kontratazio publikoaren oinarritzko printzipio eta parametroen mende egongo dira aldez aurretik: edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauan, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaria indargabetzen duena, edo Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Espainiako Parlamentuaren eta Europako Parlamentuaren 2014ko otsailaren 26ko 23/2014/EB Zuzentariak eta 2014ko EB Ordenamendu juridikora aldatzen dituenak.

Txostenen eta ordainketen egutegia 2. eranskinean dago.

Laugarrena.- ODELLen funtzionamendua

ODELLen gobernantza organismoaren gainbegiratze estrategikoa eta efikazia operatiboa bermatzeko egituratuta dago.

Horretarako, ODELL **Zuzendaritza Batzorde** batek zuzenduko du. Batzorde horren ardura izango da epe luzerako ikuspegia zehaztea, urteko lan-programa baliozkotzea eta ODELLen legitimitate politiko, instituzional eta akademikoa bermatzea.

Batzorde hori Bilboko Alkatetzan, EUDELeko Elkarteburutzan, CEMRko Idazkaritza Nagusian, Bocconi Unibertsitateko Errektoretzan eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Berrikuntza eta Agenda 2030eko Zuzendaritza dauden pertsonak osatuko dute.

Malgutasuna eta jarraitutasuna bermatzeko, Zuzendaritza Batzordeko kide bakoitzak bere erakundeak izendatutako pertsona bat izan dezake ordezkari.

Zuzendaritza Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, aurrez aurre edo online, ODELLen ikuspegi tematikoari, konpromiso politikoari eta irismen instituzionalari buruzko orientazio estrategikoa emateko.

Gainera, **Koordinazio Talde Operatibo** bat ezarriko da, ODELLen jardueren koordinazioa eta gauzatze erregularra bermatzeko.

Talde horrek ODELLeko ordezkariak izango ditu, eta hiru hilean behin bilduko da online.

Koordinazio Talde Operatiboaren erantzukizunen artean, hauek izango dira:

- Urteko lan-planaren betearazpena koordinatzea
- Lan-fluxuen bilakaeraren jarraipena egitea
- Komunikazioa, alde interesdunen parte-hartzea eta jarduera politikoak lerrokatzea
- Zuzendaritza Batzordearen bilerak prestatzea
- CEMRk jardueraren garapenerako egiten dituen gastuak justifikatzeko egiten dituen narrazio- eta finantza-txostenak berrikustea eta onartzea. Zuzendaritza Batzordeari eman behar zaio onespren horren berri.

Txosten hori egiteko, CEMRk gastuen eta ordainketen zerrenda xehatua hartuko du kontuan, gastuaren xedea eta egindako ordainketaren mekanika zehatz-mehatz egiaztatzen eta justifikatzen dituen dokumentazioarekin batera. CEMRk sortutako gastuei buruzko informazioa bidaliko die alde sinatzaileei, gardentasunaren, publizitatearen eta gobernantza onaren printzipioetan oinarrituta.

ODELLEN bulegoak

ODELL Europako programa bat da, CEMRk koordinatua. Egoitza anitzeko inplementazio-eredu pragmatiko baten inguruan egituratzen da, eta haren lankidetzatza-izaera eta behar funtzionalak islatzen ditu eredu horrek.

Bere askotariko misioak betetzeko, ODELLek bi bulegotan lan egingo du:

- Bruselan dagoen bulego bat, CEMRk ostatu emanda. EBko erakundeengana eta Europako alde interesdun nagusiengana zuzenean jotzeko aukera ematen du, eta, hala, ODELLen garrantzi politikoa eta EBn duen konpromiso politikoa indartzen ditu.
- Bilbon dagoen bulego bat, EUDELEk ostatu emanda. Tokiko errealitateen eta elkarriketa politikoaren arteko zubi-lana egiten du, eta tokiko eta eskualdeetako gobernuen eguneroko esperientzietan oinarritzen du bere programa.

Bosgarrena. – Ikusgarritasuna

ODELlek behar diren neurri guztiak hartu beharko ditu publizitatea egiteko eta hitzarmenaren sinatzaileen (CEMR, Bilboko Udala eta EUDEL) ikusgarritasuna bermatzeko.

Bereziki, CEMRen, EUDELen eta Bilboko Udalaren logotipoak ikusgai izan beharko ditu, dagokion lekuan (adibidez, pankartetan, esku-orrietan, argitalpenetan, webgunean eta material inprimatuetan).

Seigarrena.- Hitzarmenaren aldaketa

Aldaketa-eskabideak posta elektronikoz bidali beharko zaizkie gainerako Aldeei, Zuzendaritza Batzordeak berrikusi eta onartu aurretik.

Hitzarmenean edozein aldaketa egiteko, jarduketetan eta ekintzaren emaitzetan aldaketak barne, idatziz onetsi beharko dute aldeek, indarrean sartu baino lehen.

Zazpigarrena.- Konfidentzialtasuna

Aldeetako bakar batek ere ez du erabiliko, kopiatuko, egokituko, aldatuko edo lagako bere edukitzara zabalduko edo iritsitako beste Aldearen informaziorik, Hitzarmen honen arabera edo harekin lotutakoa eta konfidentziala denik.

Betebehar hori ez zaio aplikatuko hartzaileak informazio hori jaso edo eskuratu zuen egunerako bazuela frogatzen duen informazioari, ezta hartzaileak informazio horren gaineko legezko titulu ona duen beste pertsona batengandik lortzen duen informazioari ere, edota jabari publikokoa den edo izatera iristen den informazioari, baldin eta hartzailearen faltagatik edo zabarkeriagatik ez bada, edo hartzaileak bere aldetik edo berarentzat garatzen ez badu.

Zortzigarrena.- Datuen babesari buruzko betebeharrak

Aldeek nahitaez bete behar dute (EB) 2016/679 Erregelamendua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra – DBEO), pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez.

Datuak modu legezkoan, bidezkoan eta gardenean tratatuko dira, eta xede espezifikotarako bildu beharko dira; horretarako, egokiak eta beharrezkoak izan beharko dira, eta Hitzarmen honetan eta eranskinetan ezarritako helburu, ekintza eta emaitzei dagokienez beharrezkoa dena mugatuko dira.

Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen hau eta bere eranskinak 2025eko azaroaren 1ean sartuko dira indarrean, eta 26 hilabetez egongo dira indarrean, epe hori amaitu baino lehen hutsaltzen ez bada.

Ekintza 2027ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da. Inplementazio-epea luzatu ahal izateko, Aldeek idatzizko akordioa adostu beharko dute, eta akordio honi zuzenketa bat egin beharko zaio.

Aldeetako edozeinek hitzarmena deuseztatu ahal izango du, beste aldeei hiru hilabeteko aurrerapenarekin idatzizko oharra bidaliz.

Hitzarmen hau amaitzeak ez dakar berez gauzaten ari diren akzioen gaineko eskubide edo erantzukizun oro desagertzea, baina eragina izango du hitzarmena amaitu ondoren indarrean jarraitu behar duen hitzarmenaren beste edozein alderditan.

Bestalde, hitzarmena amaitzeak gastuen likidazioa eta ODELLen Batzorde Betearazlearen aurrean kontuak ematea ekarriko du, eta hark ezarriko ditu hitzarmenaren sinatzaileei egin beharreko balizko itzulketak.

Nolanahi ere, aplikatzekoa izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51. eta 52. artikuluetan hitzarmena azkentzeko eta likidatzeko araubideari buruz xedatutakoa.

Hamargarrena.- Legedi aplikagarria

Lankidetzaz hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Hitzarmenaren garapenean eta betearazpenean alderdien artean sortzen diren diren auziak, Laugarren Klausulan aurreikusitako kudeaketa- eta jarraipen-mekanismoen bidez ebazterik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean edo, hala badagokio, araudi zibilean xedatutakoaren arabera. Hori guztia, alde batera utzi gabe horiek ebazten saiatzeko aldeek hartutako konpromisoa.

Alde batek ezin baditu bere betebeharrak bete bere kontroletik kanpo dauden gertaerengatik (ezinbesteko arrazoiak):

- Alde horrek berehala eman beharko die beste Aldeei horren berri, idatziz.
- Ez du erantzukizunik izango bere betebeharrak betetzen ez baditu eragindako denboran, ezinbesteko gertaeraren arrazoiak desagertu arte.

Eranskinak

- **1. eranskina** : Xedea, helburuak eta jarduerak
- **2. eranskina**: Finantza eta administrazio baldintza orokorrak

Sinadura eta data:

JUAN MARIA ABURTO RIQUE - 30554294J
Firmado digitalmente por JUAN MARIA ABURTO RIQUE - 30554294J
Fecha: 2025.12.09 10:42:23 +01'00'



78880770Q
ESTHER APRAIZ (R:
G01029503)
2025.12.09
11:07:35 +01'00'

Fabrizio Rossi
CEMReko Idazkari nagusia

Juan Mari Aburto Rique
Bilboko Alkatea

Esther Apraiz Fernández la
Peña
EUDELeke Elkarteburua eta
Derioko Alkatea

PENNEO

The signatures in this document are legally binding. The document is signed using Penneo™ secure digital signature. The identity of the signers has been recorded, and are listed below.

"By my signature I confirm all dates and content in this document."

Fabrizio Rossi

Signatory

Serial number: fabrizio.rossi@cce-cemr.org

IP: 86.39.xxx.xxx

2025-12-09 14:52:19 UTC



This document is digitally signed using [Penneo.com](https://penneo.com). The signed data are validated by the computed hash value of the original document. All cryptographic evidence is embedded within this PDF for future validation.

The document is sealed with a Qualified Electronic Seal. For more information about Penneo's Qualified Trust Services, visit <https://eutl.penneo.com>.

How to verify the integrity of this document

When you open the document in Adobe Reader, you should see that the document is certified by **Penneo A/S**. This proves that the contents of the document have not been modified since the time of signing. Evidence of the individual signers' digital signatures is attached to the document.

You can verify the cryptographic evidence using the Penneo validator, <https://penneo.com/validator>, or other signature validation tools.